

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako ekonomia %0,5 hazi da bigarren hiruilekoan, Espainian, gainerakoan, %0,2 hazi den bitartean

Foru Erkidegoak hazkundera izan du bi urtez segidan

Martes, 16 de agosto de 2011

Nafarroako ekonomiak Barne Produktu Gordinean % 0,5eko hazkundera izan du 2011ko bigarren hiruilekoan, zortzigarren hiruilekoa segidan, eta aurreko hiruilekoko tasa berdina. Espainian, bigarren hiruilekoan izandako hazkundera %0,2koa izan da, aurreko aldikoa baino hamarren bat txikiagoa.

Urtetik urterako hazkunderari dagokionez, bigarren hiruilekoko datuekin, Nafarroan %1,8an kokatzen da eta, Espainia osoan, % 0,7an.

Alvaro Miranda Simavilla jaunak, bigarren lehendakariordea eta Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontseilaria, 2011ko bigarren hiruilekoari buruzko Nafarroako Hiruileko Kontabilitatearen aurrerapen bat aurkeztu du gaur goizean.

Miranda jaunak azpimarratu duen bezala, epealdi horretako BPGd-ri buruzko datuek bi urtez jarraian balio positiboak izan direla adierazten dute. Guztira, krisia hasi zenetik, Nafarroa zortzi hiruilekotan hazi da eta hiru hiruilekotan jaitsi da.

BPGd-aren balioak 2008., 2009., 2010. urteetan eta 2011ko bigarren hiruilekoan izandako bilakaerari arreta eskaintzen badiogu, Nafarroak batez besteko nazionalarekiko portaera desberdina adierazten du. 2007ko laugarren hiruilekoan puntu berdinetik abiatuz (100 balioa), Nafarroako BPGd-aren balioa, egun, %101,2an kokatzen da eta, Espainiakoa, 96,6an. 2010eko azken hiruilekoan, Foru Erkidegoak 2007an zuen aberastasuna berreskuratu zuen, oparoaldiko azken urtea, epealdi horretan BPGd % 100,3an kokatuz. Ezagutzen diren azken datuekin, balio hori 101,2 arte gehitu da. "Horrek –lehendakariordearen hitzetan– adierazten du Nafarroa Espainiarekin alderatuz azkarrago ari dela suspertzen, zeinak, egun, Nafarroakoarekiko 4,6 puntuko aldea duen".

Eskaintzaren eta eskariaren azterketa



Miranda lehendakariordeak 2011ko bigarren hiruilekoko BPGd-aren aurrerapen bat aurkeztu du

Adierazle makroekonomiko desberdinen azterketa banakatuari dagokionez, eskaintzaren ikuspuntutik, industria-ekoizpenaren indizeak 2011ko bigarren hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoarekiko %1,9 ko gehikuntza izan du, zerbitzuen sektorearen hazkundea %7koa izan den bitartean.

Bestalde, eraikuntza datu positiboak ematen hasia da, aurreko hiruhilekoarekiko %1,6 etxebizitza gehiago egiten hasi baitira. Horrela, 2010. urte osoan 2.870 etxebizitza egiten hasi baziren, 2011ko lehenengo bi hiruhilekoetan 2.502 hasi dira egiten. Lizitazio ofizialari dagokionez, apirilean eta maiatzean, urteko lehenengo hiruhilekoan baino %147,2 gehiago lizitatu da.

Eskariari dagokionez, Miranda jaunak adierazi duen gisan, kanpoko sektoreak portaera ona izaten jarraitzen du. Horrela, Nafarroako salgaien kanpo-merkataritzaren saldoa 2011ko maiatzera bitartean 1.124 milioi eurora igo da, 2010eko epealdi berean baino %2,6 gehiago.

Txikizkako merkataritzak gehikuntza arina izan du (%0,3) urteko bigarren hiruhilekoan lehenengo hiruhilekoarekiko. Ibilgailuen matrikulazioak ere %4,4 hazi dira 2011ko bigarren hiruhilekoan lehenengoarekiko. Bestetik, inbertsio-ondasunek %6,5eko gehikuntza izan dute 2011ko bigarren hiruhilekoan lehenengo hiruhilekoarekiko; dena dela, Nafarroan inbertsioak oztopatuta egoten jarraitzen du eraikuntzan egindako inbertsioen ahultasunaren ondorioz.